



NEOHOLLYWOOD

ABYS

(ABYSS, 1989) (V.O.S.E.)

EN LA LINEA DE FUEGO

(IN THE LINE OF FIRE, 1993) (V.O.S.E.)

RESERVOIR DOGS

(RESERVOIR DOGS, 1992) (V.O.S.E.)

EL CABO DEL MIEDO

(CAPE FEAR, 1992) (V.O.S.E.)

MAIATZAK
5
OSTEGUNA
20:15etan

MAIATZAK
12
OSTEGUNA
20:15etan

MAIATZAK
19
OSTEGUNA
20:15etan

MAIATZAK
26
OSTEGUNA
20:15etan

Laguntzaileak:



NAZIOARTEKO ZINEMALDIA, DONOSTIA
FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE SAN SEBASTIAN

Hollywooden makineria, etengabeko garapenean beti, publikoak eta zine-industriak berak azken garaiotan agertutako gustu eta parametroetara moldatzen joan da. Denok dakigu, ordea, mantsoa ohi dela makineria handiaren pausoa, eta Hollywoodek, egoera sozio-ekonomiko berrira moldatze-bidean jarrita ere, tradizio labur baina sendo finkatutako baten inertziapean segitzen du mugitzen. Horrela, piskana-piskana zenbait aldaketa egingo badi-tu ere, aldaketok birmoldaketak dira funtsean, produktora nagusiei aspalditik hain emankor gertatu zaizkien moldeen eraberritzea, alegia.

Hauxe da, hain zuzen, aurkezten dizuegun ziklo berri honen ezaugarria, eta hortik jarri diogun izenburua: Neohollywood; izan ere, zikloa berrirakurketa bat baita, Hollywoodeko industriaren hasieratiko garapena estuki markatu zuen *genero-zinegintza*arena.

Ziklo honetan aurkezten diren filmeak, zine-aretoetara bildu ohi den publikoaren zatiren batentzat ezagunak izanagatik ere, aitatu ditugun joera berri horien adierazgarri dira, gure ustez. Hona hemen gakoak: aurretik arrakasta izandako zenbait filmeren *remake*-a (**El cabo del miedo**), erreferentzia zinefiloa (**Reservoir dogs**), fantasiatzko zinearen garapena (**Abys**) edo *star system*-aren berreskurapen berezia (**En la línea de fuego**).

J. Lee Thomson-ek 1966an zuzendu eta Gregory Peck eta Robert Mitchumek protagonizatutako **El cabo del miedo**ren *remake*ari ekiterakoan arrisku handia bereganatu zuen Martin Scorsese zuzendari prestigiotsuak. Scorsese, baina, airos asko gainditu zuen frogia, *genero-filme* azkar eta indarrez beterikoa eginez eta *psycho-killer* generoaren konbentzio guztiak inongo konplexurik gabe bereganatuz.

Filmea, bestalde, leialtasunari, erlijioari eta erruari buruzko go-goetez beterik dago eta egungo gizarte-sail guztiak harrapatuta dituen bortizkeriari buruzko azterketa gordin eta intelijentea da. Guzti honetaz gain, **El cabo del miedo** *thriller* klasikoari eginiko omenaldi ederra da, Hitchcock eta Michael Powell eta batez ere Charles Laughton-en **La noche del cazador** filmeari buruzko erreferentziez beterik dagoena. Azkenik, Scorsese-ren filmea beste zenbait produktu estandarizatu eta estereotipatuagotatik bereizten duena generoaren osagaiak erabiltzerakoan erakusten duen ondradutasun handia da: efektu-kolpeak tentuz erabiltzea, pertsonai tajuketa konplexua eta oihartzun biblikoa duen ikarazko giro hertsia sortzea, Robert de Nirok jokatzeko duen rolean batez ere.

Quentin Tarantinoren **Reservoir dogs**-en kasua adibide ona da, era berean, genero-filmeak era berri batez erabiltzearena; izan ere, hortik jo baitzuen zuzendari berriak bere lehen filme honetan. Pelikularen alderdi formal batzuek Kubrik-en **Atraco Perfectore**-kin zerikusi nabarmena duten arren, Tarantinok ez du *remake* soil bat planteatzen, bere mitologia partikularreko zenbait elementu



ekartzen baititu, hala nola Nicholas Ray eta Jean Pierre Melvilleri buruzko erreferentziak; horretaz gain halako ukitu kultu-literario bat ere ematen dio filmeari, Jim Thomsonen **Ihesatik** hartua, hauxe baita, hain zuzen, Tarantinoren liburu maiteenetako bat. Fruiturik gehiago eskainiko dukeen zuzendari honen *opera primak* oinarri tinkoak ditu, hala nola *flash-back* gisako egitura sendo eta konplexua -aktoreen lanak eutsia-, elkarriketen doitasuna eta eszenografia urri eta hotz baten barruko plangintzaren zehaztasuna. Hitz pare batez esateko, tradizioa eta modernotasuna, horra hor azken aldiko zine beltz klasikoaren sortze-bideetatik datorren polizi drama errealista honetan topatu dezakeguna.

Poli eta psikopatei buruz asko dakien beste bat gure Clint "Zikin" Eastwood miretsia dugu, eta bera da hain zuzen ziklo honetan berrikustea proposatzen dizuegun filmeetako baten -**En la línea de fuego**ren- protagonista. Eta hori da, agian, Wolfgang Petersen-ek zuzenduriko filmeko interesgarriena: Eastwood mitoari ateratzen dion errentagarritasuna, alegia; izan ere Eastwood nahikoa aitormen jasota baitzegoen ordurako aktore gisa, bai eta prestigio-ko zuzendari gisa ere, **Sin Perdón** saritua zuzendu ondoren batez ere. Eta ospea eskaini zion lehen generoko, *western* generoko, filme horretan Eastwood-mitoea inteligentziaz parodiatzeko lana Eastwoodek berak hartu bazuen ere, **En la línea de fuego** filmean, Eastwoodek jokatzeko duen pertsonaia beste *Harry Zikin* bat da, baina askoz eszeptikoagoa eta fisikoki nekatuagoa dagoena. Hots, eskarmentua duen bizkarzain gogorra, bere azken lanean John Malkovich psikotiko bati aurre egin beharko diona.

Azkenik, gure iruzkina itxi eta zikloa irekitzen duen filmea, **Abys**, fantasiatzko abenturen generoaren adibide on bat da. James Cameronen pelikula orain arte ikusitakoari desafio egiten dion ikuskari handia da, aldika ekintza-eszena bikainak eskaintzen dituen. Aparteko saio bati esker egindako itsasazpiko odisea honek bikain uztartzen ditu 50eko hamarkadako EEBBetako zientzi fikzioaren izpiritua eta 80ko urteetako espazioko ikara-filmerik onenen ekarpenak (**Alien, el octavo pasajero**renak, esate baterako). Zorionez, Cameron produktu-mota hau oso ondo lantzen duen gizona da, funtzionalitate handikoa, eta efektu bereziek filmearen beste alderdiak ezabatu behar ez dituela uste duena.

Carlos Muñoz

La maquinaria de Hollywood siempre en constante evolución se ha ido adaptando a los nuevos parámetros que, en los últimos tiempos, iban marcando tanto el gusto del público como la propia industria. Ahora bien, la maquinaria pesada, y Hollywood lo es, aun condicionada por los nuevos cambios socioeconómicos sigue moviéndose por la inercia que determina una corta pero asentada tradición, experimentando leves pero significativos cambios de dirección de tanto en tanto, que no son a la postre sino pequeñas recombinaciones de aquellos elementos que las grandes productoras rentabilizan desde hace tiempo.

Estos ingredientes se combinan en la coctelera que hoy presentamos bajo el epígrafe de Neohollywood, cuya seña de identidad más notable es una ingeniosa relectura del cine de género que marcó férreamente la evolución de la gran industria hollywoodense en sus albores.

Los filmes que se presentan en este ciclo, si bien conocidos por una parte del público que acude a las salas de cine, son bastante significativos, a nuestro juicio, de estas nuevas tendencias a las que nos referimos.



Las claves son: el *remake* de filmes de éxito anterior (el caso de **El cabo del miedo**), la cita cinéfila (**Reservoir dogs**), la evolución del cine fantástico (caso de **Abys**), o la recuperación *sui generis* del *star system* (**En la línea de fuego**).

Al afrontar la realización de **El cabo del miedo**, *remake* de un filme de 1966 dirigido por J. Lee Thompson con Gregory Peck y Robert Mitchum en sus papeles principales, estaba claro que Martin Scorsese estaba aceptando un gran riesgo como director de prestigio. Scorsese sale absolutamente airoso de la empresa, componiendo una película de género brisa y llena de fuerza, y asumiendo sin ningún tipo de complejos todas las convenciones del "*psycho-killer*".

Por otro lado la película está plagada de reflexiones acerca de la lealtad, la religión, la culpa y ofrece además un inteligente y crudo estudio acerca de la violencia que invade todos los sectores de la sociedad actual.

El cabo del miedo constituye, además, un hermoso homenaje al *thriller* clásico, plagado de referencias a Hitchcock, a Michael Powell y, concretamente, a **La noche del cazador**, la gran película dirigida por Charles Laughton.

En definitiva, lo que diferencia la película de Scorsese de otros productos más estandarizados y estereotipados es la gran honra-



dez con la que maneja los ingredientes del género: dosificación en los golpes de efecto, la compleja caracterización de los personajes y la creación de un malsano clima de terror y angustia de resonancias bíblicas encarnado en el papel que interpreta Robert de Niro.

El caso de **Reservoir Dogs** de Quentin Tarantino es también un buen ejemplo de un uso novedoso de la política de géneros al que se suma este joven director en éste su primer filme. Si bien algunos elementos formales de la película tienen evidentes conexiones con el Kubrik de **Atraco perfecto**, Tarantino no plantea simplemente un *remake* sino que añade otros elementos de sus mitologías particulares como pueden ser las películas de Nicholas Ray y Jean Pierre Melville, pasando por el siempre oportuno toque literario (culto) proporcionado por el acerado nihilismo del Jim Thompson de *La huida*, uno de los libros favoritos de Tarantino.

De estructura compleja, la obra prima de este prometedor director se apoya en una sólida construcción a modo de *flash-backs*, sostenida por el conjunto de los actores, la precisión de los diálogos y la exactitud de su planificación dentro de una fría y austera escenografía.

En suma, tradición y modernidad de este drama policíaco-realista en línea con el universo creativo de la última etapa del mejor cine negro clásico.

Y de polis y psicópatas sabe mucho nuestro admirado Clint "El sucio" Eastwood protagonista de uno de los filmes que os proponemos revisar en este ciclo: **En la línea de fuego**. En cualquier caso, quizá lo más interesante de la película dirigida por Wolfgang Petersen sea la rentabilización que hace del propio mito Eastwood, ya suficientemente consagrado como actor y entronizado como director de prestigio especialmente después de la premiada **Sin Perdon**. En esta película Eastwood se autodirigía para parodiar con inteligencia su propio mito dentro del primer género que le dió fama y popularidad: el western. **En la línea de fuego** el personaje que Eastwood representa es un Harry el Sucio pero mucho más escéptico y cansado físicamente. Es decir, un duro "de vuelta" que aún tendrá que enfrentarse a un psicótico Jon Malkovich en su última tarea.

Por último **Abyss**, es un buen ejemplo del género de aventuras con componente fantástico. El filme de James Cameron constituye un gran espectáculo que desafía lo visto hasta ahora y que, a ráfagas, proporciona momentos de magnífico cine de acción. El esfuerzo técnico es notable en esta odisea submarina que concilia estupendamente el espíritu de la ciencia ficción USA de los cincuenta con algunas de las mejores películas de terror espacial de los ochenta (v.g. **Alien, el octavo pasajero**). Afortunadamente Cameron es un hombre de gran eficacia en este tipo de productos, de una funcionalidad notable y que mantiene la convicción de que los efectos especiales no han de tapar otros aspectos de una película.

Carlos Muñoz




5 de Mayo, jueves, 20:15

Abys (Abyss, 1989) V.O.S.E.

E.E.U.U. **Guión y Dirección:** James Cameron. **Producción:** GJP Inc. para 20th Century Fox. **Fotografía:** Mikael Salomon. **Música:** Alan Silvestri. **Montaje:** Joel Goodman. **Intérpretes:** Ed Harris, Mary Elizabeth Mastrantonio, Michael Biehn, Leo Burmester, John Bedford Lloyd, Todd Graff. **Duración:** 140 min. Versión completa montada por el director.

Abys es una odisea submarina que marca el espacio donde la ingeniero Lindsey y el técnico Bud dirimen sus disputas matrimoniales al tiempo que luchan contra adversidades (naturales o ideológicas) y descubren un mundo lleno de fascinación, en las profundidades del abismo.

Abys itsasazpiko odisea bat da. Bud teknikaria eta Lindsey injinerua senar-emazteak dira eta ingurune horretan garatuko dira euren arteko liskarrak, eragozpen natural eta ideologikoen kontra ere borrokatzen diren bitartean, liluraz beteriko mundu batekin topo egiten duten bitartean, itsasoaren sakonean.




12 de Mayo, jueves, 20:15

En la línea de fuego (In the Line of Fire, 1993) V.O.S.E.

E.E.U.U. **Dirección:** Wolfgang Petersen. **Producción:** Jeff Apple, para Columbia Pictures y Castle Rock Entertainment. **Guión:** Jeff Maguire. **Fotografía:** John Mahoney. **Música:** Ennio Morricone. **Montaje:** Anne Coates. **Intérpretes:** Clint Eastwood, John Malkovich, Rene Russo, Dylan McDermott, Gary Cole, Fred Dalton Thompson. **Duración:** 123 min.

Frank Horrigan es un agente del Servicio Secreto. Cuando ya se acerca la edad del retiro, aún vive obsesionado por su fracaso de 1963. El era entonces uno de los agentes encargados de proteger al asesinado presidente Kennedy. Ahora, treinta años después, el actual presidente está en campaña de reelección, y Horrigan es uno de los agentes que le custodian. Descubre que un asesino profesional está siguiendo los pasos del presidente, salvarle la vida, aunque le cueste la suya es su reto.

Frank Horrigan Zerbitzu Sekretuko agente bat da. Erretiratzeko ordua gertu duela, oraindik ere 1963ko frakasoarekin gogoratzen da. Kennedy babesteaz arduratuta zeuden agenteetako bat zen bera, lehendakaria hil zutenean. Hogeita hamar urte pasa diren honetan, oraingo lehendakaria berrautatze-kanpainan dihardu, eta Horrigan da bera zaintzen duten agenteetako bat, berriro. Hiltzaile profesional bat lehendakariaren atzetik dabilela jakin. Berea galduko balu ere, lehendakariaren bizitza salbatzeari, alegia.




19 de Mayo, jueves, 20:15

Reservoir Dogs (Reservoir Dogs, 1992) V.O.S.E.

E.E.U.U. **Guión y Dirección:** Quentin Tarantino. **Producción:** Lawrence Bender, Monte Hellman y Richard N. Cladstein para Live Ent. **Fotografía:** Andrzej Sekula. **Música:** Karyn Rachtman. **Montaje:** Sally Menke. **Intérpretes:** Harvey Keitel, Tim Roth, Chris Penn, Steve Buscemi, Lawrence Tierney, Michael Madsen. **Duración:** 99 min

Una banda planea el atraco de un almacén de diamantes. Todo está perfectamente estudiado pero al final algo falla y provoca un estallido de violencia y la certeza de que un chivato se ha infiltrado en la organización. El espectador se ve sumergido en un relato con vocación plenamente realista en el que, como uno más de los atracadores de la banda, trata de explicarse lo sucedido.

Lapur-banda bat harribitxitegi bateko lapurreta prestatzen ari da. Xehetasun guztiak aurretik ongi aztertu dituzten arren, azkenean zerbaitek huts egiten du. Honek biolentziune garratza ekarriko du berekin, eta euren artean salatari bat dagoeneko ziurtasuna. Filmea eite errealistakoa izaki, ikuslea istorioan murgiltzen da, eta, bandako bat gehiago bailitzan, gertatutakoaz galdezka ariko zaio bere buruari.



26 de Mayo, jueves, 20:15

El cabo del miedo (Cape Fear, 1992) V.O.S.E.

E.E.U.U. **Dirección:** Martin Scorsese. **Producción:** Barbara de Fina (Amblin Ent., Cappa Films y Tribeca Prod.) para Universal. **Guión:** Wesley Strick. **Argumento:** la novela de John D. MacDonald y el guión de James R. Webb. **Fotografía:** Freddie Francis. **Música:** Bernard Herrmann, adaptada por Elmer Bernstein. **Montaje:** Thelma Schoonmaker. **Intérpretes:** Nick Nolte, Robert de Niro, Jessica Lang, Juliette Lewis, Joe Don Baker, Robert Mitchum, Gregory Peck. **Duración:** 128 min.

Un peligroso criminal sale de la cárcel donde aparentemente se ha reformado, pero su objetivo es otro... quiere vengarse de un abogado que no supo defenderle. La venganza es un plato que, Max Cady el ex-convicto, decide tomar frío, utilizando las artimañas que aprendió en prisión. Sam Bowden, el objetivo de Max, es hoy un abogado de prestigio con una gran casa y una familia encantadora...

Gaizkile arriskutsu bat, bergizarteratzeko gaitu omen dela eta, espetxetik irteten da. Egoera berrian, legebidetako bizimodua egiten du, baina isilpeko helburua du: nahikoa ongi defendatzen jakin ez zuen abokatuaz mendekatzea, alegia. Buru hotzez ekingo dio, baina, Max Cady-k mendeku hartzeari. Sam Bowden, Max-en mendekugaia, abokatu ospetsua da gaur egun, etxe bikaina eta familia zoragarria dituena.